

Noaia!!!




Laster hasiko da
Esperientzia Eskola




Higain estudioa,
musika egiteko txoko ederra

Bertako produktuak! Babarrunak, sagarrak...



Santu Guztien Egunean

Erramuak,
zentruak, koroak eta
landaretan aukera
zabala hemen
aurkituko duzu.



Egun osoan zehar zabalik!

Urtinea Lorategia

San Esteban plaza
943 362 255 Fax: 943 366 064
E-mail: urtinea@naukasnet.net

Albiste iruditan!!

Kiroldegiko handitze lanak, aurrerabidean

Kiroldegiko instalakuntzen handitzea begi bistakoa da jada. Batetik, garai bateko Oiardoko atarian zegoen plaza baliatzen ari dira, lehengo fatxada aurrerago ekarri eta etorkizunean, areto berrientzat lekua egiteko. Bestetik, Kiroldegiaren eta Udarregi ikastolaren artean dagoen futbol zelaian, arranja eraikitzen ari dira, eskubalo partidak jokatzeko diren aretora igotzeko. Modu horretan, herritarren mugikortasuna hobetu nahi da. Segurtasunagatik beharrezkoa ez bada behintzat, lanek iraun artean Kiroldegiak zabalik jarraituko du. Atzerapenik ez bada, lanek hamar bat hilabetez luzatuko direla aurreikusten da. Beraz, 2011ko udaberriko amaituak behar lukete.



LANAK UDABERRIRAKO AMAITUTA BEHARKO LUKETE EGON.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzísidor, Maria Angeles Arruti, Aitor Eleta, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alasne Begiristain, Denis Elortza, Garazi Iturralde, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Maddi Galbete, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

ESPERIENTZIA ESKOLA _____ **5. OR.**

ATEZ ATEKOAZ, BATZAR NAGUSIETAN _____ **6. OR.**

DIPLOMAK ODOL EMAILEENTZAT _____ **8. OR.**

AKERRA GAZTETXEA, MARTXAN _____ **12. OR.**

OSTADARREN DABILTZAN FUTBOLARIAK _____ **15. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**ARRANDEGIA
PELLO**
Puntapax Kalea, 7
Tf 36 21 64
USURBIL

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

**BORDATXO
edaritegia**
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Josue
Igeltseritza:
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL



UNAI AGIRRE

Zenbat balio du gure osasunak?

Ostegun honetan bertan, “zeinek erre nahi ditu hondakinak?” izenburupean, Mikel Peruarena kazetariak hitzaldia eskainiko du Hernanin, erraustezaleen lobbyaren interesen inguruan. Zeinek ukatu interes ekonomikoak, egon, badaudela. Pastel handia da gozozale hauentzat. Greenpeacek berriki salatu duen bezala, erraustegia hartuko lukeen plantarako baldintza pliegoa publikatu da, 224,4 milioiko kostuarekin. Honi BEZ-a eta 10 urtetako funtzionamenduaren kostua gehituta, 366 milioi dira. Zenbat familia izango gara Gipuzkoan, 300.000 bat? Atera kontuak. Erdia Europako Inbertsio Bankuari eskatu diote, beste erdia, estatuko hainbat banketxeri eskatutako maileguetan. Europako Inbertsio Bankuak, irregulartasunak medio, finantziarioaren onarpena atzeratzea erabaki du, kasua ondo aztertzeko. Eta gainontzeko bankuetan ere, ez dute argi ikusten. Nahiz eta azkenean, guzti hori ordaindu, gu guztioi tokatuko litzaiguke.

Tratamendu garestia da 4 edo 5 edukiontzien bilke-

tak eskatzen duena. Batzuek oraindik atez atekoa garestiago ateratzen dela esaten badute ere, atzetik inongo daturik eman gabe. Baina garestiago aterako balitz ere, zenbat balio du gure osasunak? Amiantoak ere bazituen alternatiba garestiagoak.

“Gaur eta hemen bizi diren herritarrei bizitza errazteaz ari naiz, eta ez haiek kaltetzeaz etorkizuneko balizko osasun arazoaren kontura”.

Esaldi hau erraustezale batek dio, eta Argia astelehenaren hurrengo zenbakian (2249 zbkia.) argitaratuko dute, Andoni Amonarriz eta Marian Beitialarrangoitiak aurrez aurre izandako elkarrizketan. Nik behintzat, nire bizitza konplikatu dut, nire semei bizi kalitatea bermatu nahian. Erraustegian erretzen dena, Copiapó bezalako meatzetan berriz atera beharko da, edo birziklatu ez den aluminioa berriz sortzean Danubio ibaia lohi gorritz kutsatuko da.

Ez erraustegia bakarrik; erraustegiaren bizimoduak, bizimodu erraza, arriskutsuegia da niretzat.

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Igandean, Hernani-Goizueta bizikleta desafioa

Zubieta Lantzeneko txirrindulariek egin dute deia. Igande honetan, urriak 24, Hernani-Goizueta desafioan eta ondorengo bazkarian parte hartzeko aukera dute txirrindularitza zaletuek. Ez da doping kontrolik izango...

“Irteera 10:00etan izango da eta parte hartzeko ez daukazu Klenbuterolik hartu beharrik, ezta sasoiko egon beharrik ere (25 km dira eta egongo da kotxez bueltatzeko aukera). Helburua ondo pasatzea eta izerdi pixka bat ateratzea da. Eta, nola ez, bazkal giroan elkar xaxatzea. Iazko parte hartzaileak (edo saiatu zinetenak) hauek izan zineten: Xabier Zudaire, Josune Iparragirre, Mikel Erauntzetamurgil, Xabier Zaldua, Mikel Berasategi, Eñaut, Mikel Aranburu, Xabier Arregi, Garbiñe, Iñigo, Joxe Mari, Zigor, Aitor, Jasone,



LEHENAGO ERE EGIN IZAN DUTE ANTZEKO DESAFIORIK.

Asier Azpiroz, Kike, Mikel Del Puerto, Unai Agirre, Nekane Eizagirre, Eusebio, Iker, Joseba Larburu, Denis, Alazne, Imanol Olaizola eta Lasturko bat”, hala dio bidali diguten deialdiak.

Animatzen zaretenok ere, baieztatu izenak (zuenak eta ingurukoak) lehenbailehen Joxemiri telefonoz deituz (651 701 519) edo e-posta bat idatziz (jsbask@movistar.es).

Esperientzia Eskola, ikasteko beti da garai ona

50 urtetik gorako herritarrei zuzenduta dago Esperientzia Eskola. Ikasteko gogoz daudenei. Baina ez da azterketarik egin behar, ezta etxerako lanik ere. Lagunarteko giroan, aspaldiko jakintzak gogora ekarri eta berriak ezagutzeko aukera ederra dago, asteartero eta bi orduz baino ez, Artzabalen.



ASTEARTERO IZATEN DIRA ESPERIENTZIA ESKOLAKO KLASEAK, ARTZABALEN.

Usurbilgo kasuan, aurtengoa laugarren promozioa izango da. Eskolak Artzabal baserrian izango dira. Asteartean 16:00etatik 18:00etara. Ikasturterako matrikulazio epea irekita dago. Eta azaroaren 2an emango dute lehen eskola. Informazio gehiago nahi izanez gero, honako telefono zenbakira deitu: 943 22 41 46.

NOAUA! Nola izan zenuten Esperientzia Eskolaren berri?

Maria Jesus Leunda. Nik NOAUA!ren bidez izan nuen Esperientzia Eskolaren berri.

Kizkitza Urbistondo. Niri Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik eman zidaten honen berri. Langabezian geratu nintzen, eta han eman zidaten honen berri. Hortik iritsi zitzaidan Esperientzia Eskolaren kontu hau.

KIZKITZA URBISTONDO

“25 lagun inguru biltzen gara. Artzabal, gainera, oso toki atsegin da klaseak hartzeko”

N. Eta ordutik, urtero animatzen zarete, ezta?

M. J. L. Bai. 50 urtetik gorako ikasleei irekita dago. Lehen AEK-Euskaltegia dagoen egoitzara joaten ginen, astean bi orduz. Baina orain Artzabalen jasotzen ditugu eskolak.

K. U. 25 lagun inguru biltzen gara. Iaz beste urte batzuetan baino ikasle gehiago animatu ginen. Artzabal, gai-

nera, oso toki atsegin da klaseak hartzeko.

M. J. L. Astean bi ordu baino ez dira eta lagun giroan izaten gara. Ia gehienak hasieratik gaude. Eta Esperientzia Eskola baino lehen ezagutzen ginen. Baina adiskidetasun handiagoa dugu orain. Eta lagun giroan izaten gara.

N. Zergatik animatu zineten, ordu libreak betetzeko, ikasteko... Zein asmorekin eman zenuten izena?

K. U. Niretzat ez da denborapasa. Bestelako zereginak ere baditugu. Baina astean bi ordu baino ez dira eta beti ikasten duzu zerbait. Gai batzuk ezagunak dira baina lantzen diren beste batzuk berriak dira guretzat.

M. J. L. Bi ordu dira astean. Eta ez dago gero etxerako lanik (azterketarik ere ez da egiten Esperientzia Eskolan). Apunteak ematen dizkigute. Gero nahi duenak, etxean sakontzeko.

N. Irakasleekin beraz giro ona izango da.

M. J. L. Bai, oso ona. Beste herri batzuetan ere ibiltzen dira eta batzuk urtero etortzen dira.

N. Besterik esateko.

M. J. L. Gizonezkoak falta dira. Urte batean izan zen gizonezko bat, baina iaz emakumeak bakarrik biltzen ginen.

K. U. Ea animatzen diren. Ze gaiak denen interesekoak dira.

M. J. L. Ez dezatela pentsa puntua egiten gabiltzala hemen.

Matia Fundazioaren eskutik abiatu zen

Esperientzia Eskolak 2000. Urtean hasi zuen bere ibilbidea Matia Fundazioaren eskutik. Donostian hasi zen 11 ikaslerekin, baina gaur egun Gipuzkoako eskualde guztietara zabaldu da. Esperientzia Eskolatik eta bere tailerretatik dagoeneko 1.350 pertsona baino gehiago pasa dira.

Usurbilen, honako ikasgaiak landuko dira: Euskal Herriko historia, musikaren historia, gorputz espresioa, literatura tailerra, artearen historia, lan arloko Zuzenbidea...

Azaroaren 2an hasiko dira eskolak

Azaroaren 2an hasiko dira Esperientzia Eskolan elkartzen. Klaseak asteartero eskainiko dituzte, bi orduz; 16:00etatik 18:00etara, Artzabalen.



KLASEAK ASTEARTETAN IZANGO DIRA, BI ORDU BAINO EZ.

Atez ateko bilketaren oihartzuna

Gipuzkoako Batzar Nagusietara heldu da

Atez ateko bilketaren nondik norakoak Gipuzkoako Batzar Nagusietako Garapen Iraunkorreko batzordean aurkezteko aukera izan zuen Usurbilgo Udaleko alkate Xabier Mikel Errekondok joan den astean. Gainera, egun Batzar Nagusietan ordezkaritza duten talde politikoek hiri hondakinen kudeaketaren inguruan duten iritzia plazaratu zuten.

“Hiri hondakinen arazoari irtenbide integrala eman dio atez ateko bilketak. Arazo osoari erantzuten dio”, adierazi zuen Usurbilgo udaleko alkate Xabier Mikel Errekondok Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Urriaren 14an Garapen Iraunkorreko batzordean, batzarkideei udalerrri gisa Usurbilen berri ematearekin batera, atez ateko bilketaren ezagueriak eta emaitzak, sistema abiatu aurretik prozesu parte hartzailean buruturiko lana, edota sistemaren bideragarritasuna defendatu zituen.

OHITURA ALDAKETA

“Mc Donald’s-ek ere atez atekoa egiten du Usurbilen”

Baita bide honetan emandako beste zenbait urrats ere; hala nola, Usurbilgo Itunaren sinatzea edota otsailean buruturiko herri galdeketa. Orain arte herritarrekin batera egindako lanarekin harro zeudela adierazi zuen.

5. edukiontzien esperientziekin baino gehiago

Udalerrri osora, etxebizitza, saltoki eta urte hasieratik, baita industria gunera eta Urbil merkatal gunera ere hedatu den ohitura aldaketa gisa definitu zuen atez ateko bilketa. “Mc Donald’s-ek Usurbilen atez atekoa egiten du”, jarri zuen adibide moduan. Zenbait zenbaki ere aurkeztu zituen:



ALKATEA, ESKUBITARA, GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETAKO ORDEZKARIEN AURREAN. EZKERRETARA, LUISMARI ORMAETXEA BATZARKIDEA ETA ZINEGOTZIA.

%86raino ere ailegatu den gaikako bilketa maila edota 15 kg organiko jasotzen direla biztanleko eta hilabeteko edota 90 tona denbora tarte berean herritar guztien artean. “Gipuzkoa osoko 5. edukiontzien sistemarekin baino gehiago”, zehaztu zuen. Atez atekoa, kolore politiko askotariko alderdiek bultzatzen, Gipuzkoan zehar zabaltzen eta nazioartean, duela urte dezentetik aplikatzen den sistema dela gogorarazi zuen.

Trabak, ahaleginari

Foru Aldunditik bultzatu nahi den errauste planta egitasmoa ere ahotan hartu zuen Errekondok. Usurbilen birziklatze maila %80raino igota, saiakera saritu beharrean, alkateak zioenez, “errauste plantarekin zigortu, oztopatu eta mespretxatzen da”. Gogorarazi zuenez, atez ateko bilketa-ekin errauste plantaren beharrik ez dagoenean gainera. Hondakinen arazoari aurrez aurre heldu zaiola aipatzen zuen Errekondok, nahiz “trabak besterik ez ditugun jaso”.

Egun hondakinen kudeaketaren inguruan, bi eredu aurrez aurre jarriak daudela zioen. Balore desberdinen arteko talka gertatzen ari dela: berrera-bili eta birziklatzea edo erraustearan,

hondakinak edo zaborra kontzeptuen artean, herritarren lanaren edo makina kutsakorren artean...

Usurbila etortzeko gonbita

Europar Batasunak hondakinen kudeaketan finkatuak dituen lehentasunak aipatu zituen. “Murriztu, berreskura, birziklatu”, lehenik eta jarraian gaineratzen zuenez, “errausketa azken aurreko aukera da”. Azkena, hondakinak zabortegira garraiatzea. Gipuzkoako erakunde nagusiko ordezkariek Europako errauste plantak ezagutzera joan ohi direla gogoraraztearekin batera, hamar minutura dagoen udalerrri honetara atez ateko bilketa ezagutzera ez etorri izanarekin, bere esanetan, “zur eta lur geratzen gara”.

Batzar Nagusien onespina

Usurbil bisitatzeko gonbita luzatu zieten batzarkideei, aurkezpenean zehar adierazi zuen moduan, errauste egitasmoez gain, “alternatibak egon badaude” eta. Batzar Nagusiek 2008an aho batez onartu zuten ebazpenak gainera, proba moduan Usurbilgoa bezalako esperientziak abiatzeko saiakerak egitea babesten du, Usurbilgo udaleko alkateak batzarkideei gogorarazi zenez.

Galderak eta adierazpenak

Alkatearen aurkezpen saioa Amaitu ostean, bi errondetan batzarkideek Errekondok esandakoei erantzun, galderak egin eta euren iritzia emateko tarte hartu zuten. Aralar eta Ezker Batuko ordezkariak atez ateko bilketa babestu zuten. Usurbilgo Udalak burututako prozesuagatik zoriondu eta bidean aurrera jarraitzeko prestutasuna agertu zuten, Aldundiari hausnarketa galdegitearekin batera.

Hamaikabat-etik Luis Mari Ormaetxeak, PIGRUG-ak dioena defendatzearekin batera, atez ateko bilketa lotutako emaitzak, sistemaren bideragarritasuna eta Lapatx-eko plantara ailegatutako Usurbilgo konpostaren kalitatea zalantzan jarri zituen. EAJ-PNV-ko ordezkariak Zubietako Garbitxikiak osasun arauak ez zituela betetzen ziurtatu zuten, atez ateko bilketa ez eraginkortzat jotzearekin batera. PIGRUG-arekin bat egin zuten



BATZARKIDEEK GALDERAK EGINEZ ETA IRITZIA EMANEZ HARTU ZUTEN PARTE.

PSE-EE-ko batzarkideak eta PP-koak Kontsoltzioaren lana azpimarratu.

Adierazpen hauei erantzunez, Usurbilgo udaleko alkateak, bilketa datuak publikoak direla gogorarazi zuen, Gipuzkoako Hondakinen Kontsoltzioak argitaratutakoak. Usurbilen bildutako materia organikoak, %99tik gorako purutasuna duela erantsi zuen. Salatu zuenez ordea,

"karakterizazioan egotea eskatu dugu, baina ez digute utzi".

Garbitxikiari dagokionean, Zubietako azpiegitura Ormaetxea alkate zela Donostiako Udalarekin onartutako proiektua izan zela gogorarazi eta parte hartze prozesuan zubieta- rrek gehiengoz berretsi zutela gaineratu zuten. Moratoria eskaera ere berretsi zuten.

Atez ateko bilketa, batzarkideen ahotan

Rebeka Ubera, Aralar: "Usurbilek ausardiak jokatu du. Herritarrak inplikatu ditu. Hondakinen bilketa garrantzitsua da, baina fase bat da. Gakoa ahalik eta zabor gutxiena sortzea da. Bidea luzea da, ezin gara geratu egindakoarekin. Goazen aurrera, beste faseetan hobetzeraz. Azpiegitura osasuntsuena eta ingurumenarekiko errespetagarriena dena bilatu, aplikatu eta sakontzea. Gu hor egongo gara".

Arantxa Gonzalez, Ezker Batua: "Zoriondu Usurbilgo Udala, eraman duen prozesuagatik. Aldundiak sakonago hausnartu behar luke, errausteak ez baitu zentzurik hondakinak birziklatu eta berrerabili daitezkeenean. Atez ateko bilketaren aurkako bataila antolatu da. Zergatik, zeri diote beldurra? Gauzak gaizki egin dira. Gipuzkoak ez du erraustegiaren beharrik".

Manuel Michelena, PP: "Kontsoltzioan hartutako erabakiak, udal guztiek babestu behar dituzte. Kontsoltzioak materia organikorik ez botatzearen aldeko apustua egiten du. Hori da helburua lortzeko bide onena. Usurbil, Oiartzun eta Hernaniko udalek agortua dagoen eztabaida bat luza- tzea nahi dute.

Olatuarena egiten diete PIGRUG-arekin bat ez da datozen alderdiei. Atez ateko bilketa ezin da instalakuntzak bikoizteko baliatu".

Emiliano Cabañas, PSE-EE: "Haietako (usurbildar) gutxi batzuekin hitz egiten dugu eta zainduak sentitzen dira, ez esateagatik sistemagatik jazaritua. PIGRUG-ean onartutakoarekin bat egiten dugu.

Atez ateko bilketa edo 5 edukiontzi- en sistema bateragarriak izan daitezke, baina bietako inork ez du hiri hon-

dakinen arazoa konpontzen. Erraustegia edo zaborategia beharrezkoa da".

Luis Mari Ormaetxea, Hamaikabat: "Desinformazioan oinarritu eta ekonomikoki artifizialki mantentzen den bilketa sistemarik, hemen gauden gehienok ez dugu nahi. Ekonomikoki hondamena da. Gu ere, Hamaikabat, osasunaren alde gaude, baina osasun jasangarriaren alde".

Arrate Albizu, EAJ-PNV: "Udalerriek hartutako erabakiak errespetatzen ditugu. Ez dugu ezer Usurbilgo herritarrek eta Udalak hartutako erabakiaren aurka. Definizioz ez gaude atez ateko bilketaren aurka, bai ordea prozesuaren aurka. Herritarrak derrigortzen ditu, ez inplikatu. Sistema ez eraginkorra, garestia eta osasunaren kalterako da".

Herriko odol emaileak sarituko dituzte igandean, Ikur Egunean

Igande honetan, urriaren 24an, Oria Behea bailarako Odol Emaileen Elkarteak "Ikur Eguna" ospatuko du Adunan. Iaz, 25, 40, 50, 60 edo 75 odol-emaitezara iritsi ziren herritarrak omenduko dituzte. Ekitaldi xume baten bitartez, Odol Emaileen Elkarteak ikur eta diploma bana eskainiko die, denbora honetan zehar azaldutako eskuzabaltasunagatik.

Odol Emaileek aditzera eman dutenez, "emaitza kopuru hauetara iristea ez da erraza, urte askotako elkartasun adierazgarri dira".

Orain arte bezala, aurrerantzean ere, horren beharra izango da. "Odola emateak ez du minik ematen, poza baizik, era horretan laguntzen dugulako sendaketa bidean odola behar duen gaixoari".



ODOL EMAILEEK EGUN BEREZIA OSPATUKO DUTE IGANDE HONETAN.

14 usurbildar daude aurten izenda-tuak Adunako ospakizun honetara, eta "guztiak bereziki zoriondu nahi ditugu, aipamen hauetara iristea benetan eskertzekoa delako. Aldi berean, eredu ditugu beste herritarren aurrean", adierazi digute Usurbilgo Odol Emaileen elkartetik.

Adunan sarituko dituzten usurbildarrak

2009 urteari dagozkion emaitzen arabera, ikurra jasoko dituztenak.

25 Emaita

Miren Arantzazu Arruti Huegun
Beatriz Azaldegi Urkiola
Koro Azkue Mendizabal
Pili Lizaso Murua
M. Sol Unanue Izagirre
Agustin Urdangarin Camino

40 Emaita

Angela Monterroso Garcia

50 Emaita

Patxi Arruti Izeta
Juan M^a Etxeberria Yarza
Manuel Gonzalez Correa
Jesus M^a Irazusta Iribar
Jose M^a Zubeldia Errazkin

60 Emaita

Agustina Arizti Larburu

75 Emaita

Joseba Rezola Eizagirre

KzGunea goizez irekiko dute azaroan

KzGunea sareak teknologia berriei buruzko doako zerbitzuen eta ikastaroen katalogo zabalak eskaintzen ditu. Gainera, Internet erabiltzen ikasteko eta nabigatzeko behar diren instalazioez hornituta dago.

Azaro hasieran, "Internet Kurtsua KzGunea + e-administrazioa" izeneko ikastaroa eskainiko dute, azaroaren 8tik 19ra.

Azaroan, goizez irekita

Urriaren arratsaldean dago irekita, baina azaroan goizez irekiko dute: astelehenean ostiralera, 9:00etatik 13:00era.

Telefono zenbakia: 943 570 999.

E-posta: tutor.usurbil@kzgunea.net
www.kzgunea.net

Sendategian egindako artelanak, Sutegin jarriko dituzte ikusgai

Sendategiko gaixoen pinturak eta esku-lanak bilduko ditu urriaren 26an zabalduko den erakusketak. Hala nola, sendategikoek egiten dituzten jardueren argazkiak ere.

Aurten, sendategian bertan lehen pintura lehiaketa antolatu dute eta oso harrera ona izan du.

Urriaren 26tik azaroaren 2ra arte, Sutegin ikusgai.

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
20170
USURBIL

“Hala bazan”, txotxongilo ikuskizuna Sutegin

Bihurri Haur Ludotekakoek, Kutxarekin batera, "Hala bazan" izeneko txotxongilo emanaldia antolatu dute ostiral arratsalde honetarako, Sutegiko auditorioan.

Rosa Maria Martinezen egilearen eskutik, ikuskizunean zehar kontatuko diren ipuin atseginen bidez mundu hobe bat ezagutzera bultzatzen gaituzte, adiskidetasuna eta ingurumenarekiko errespetua nagusitzen diren giza balioetan oinarrituta. Ordubete inguruko ekitaldia, 3-8 urte arteko haurrei zuzendua dago. Sarrera doan. Hitzordua, aipatu moduan ostiralean, arratsaldeko 17:30ean Sutegiko auditorioan.



SAIDA ARRATSALDEKO 17:30EAN
HASIKO DA.


Usoa Zumetaren serigrafiak ikusteko azken aukera, asteburu honetan

Serigrafiaren teknika erabiliz, Usoa Zumetak artista ezberdinen lanak bildu ditu erakusketa honetan. Koldobika Jauregi, Dora Salazar, Juan Luis Goenaga, Nestor Basterretxea, Jose Luis Zumeta, Blami, Judas Arrieta eta Hugh McCarthyren pintura ezagutzeko aukera paregabea dugu egunotan Sutegiko erakusketa gelan. Usoa Zumetak egin eta bildu duen lan grafikoa.

Larunbat honetan izango dugu erakusketa honetaz gozatzeko azken aukera.

Asteazken zehar, 16:00etatik 19:00etara bisitatu daiteke erakusketa, eta larunbatean, ordutegi honetan: 11:30-14:00 (goizez), 17:00-20:00 (arratsaldez).

Arte Ederrak ikasten ari zela, serigra-



MARGOLARI EZBERDINEN LANETAN
DINARRITZEN DIRA USOA
ZUMETAREN SERIGRAFIAK.

fia ikastaro bat egiteko aukera izan zuten Donostiako Artelekun. Gaur egun, Usoa Zumetak horretan dihardu buru belarri. Serigrafia teknika erabiliz osatu dituen lan berrienak dira Sutegin erakusgai jarri dituenak.

Sutegin eskegita dauden serigrafiak salgai daude gainera; 120 eta 450 euro artean.

Ostegun honetan, Berdintasun Planaren aurkezpena Artzabalen

Ostegun honetan, urriak 21, Berdintasun Plana aurkeztuko da, azken urteotan udaletxetik burutu den prozesuaren emaitza.

Joan den iraila amaierako osoko ohiko bilkuran, udal ordezkarien gehiengo osoaren babesa jaso zuen testuak. Arloz arlo, 2014. urtera arte hainbat asmo betetzea proposatzen du plan honek.

Bilkura informatiboa izango da Artzabalgoa, baina baita herritarren zalantzak argitu eta euren ekarpenak egiteko gunea ere.

Eguna: urriak 21, osteguna.

Ordua: 18:00.

Tokia: Artzabalgo areto nagusia.

Berdintasun plana ikusgai dago udaletxearen webgunean:

www.usurbil.net

Azaroaren 1ean, artisautza azoka

Azaroaren lehenean hutsik egiten ez duen hitzordua prestatzen ari dira Aitzaga kultur elkartekoak. Hamabosgarren edizioa izango da hau. Beste urte batzuetan, bitxigintzan, zeramika eta egur lanketan, edota metalgintzan diharduten artisauak hurbildu izan dira.



AITZAGAK ANTOLATUKO DU
BESTE BEHIN ERE ARTISAU AZOKA.

Higain estudioa martxan da San Estebanen

Musikaren eta sormenaren aterpe berria

Dela margolaria, dela eskultorea, dela arkitektoa... Sormenari lotutako beste arloetan guztietan bezala, soinu teknikari batek ere bere txoko propioarekin amesten du. Urtetan beste estudioetan lan egin ondoren, bere lantoki propioa diseinatu eta gauzatzeko aukera izan du Haritz Harreguyk. San Estebanen bertan hartu gaitu, Higain estudioan. Bidean zailtasunak izan ditu, baina orain pozik dago azkenean bere ametsa gauzatu ahal izan duelako.

NOAUA! Elkar, Azkarate, Garate, IZ-Amasa... Beste estudio askotan egon ondoren, zurea eraiki duzu. Zentzu horretan, zure ametsa bete al duzu?

Haritz Harreguy. Bai, noski. Forma berezi bat eman diot estudioari. Denborarekin joaten zara ikusten zer gustatuko litzaizukeen egitea. Nire gustura egindako estudioa da. Lanerako beti buruan izan dudana.

TOPERA LANEAN

Lehen lana Kaotikorena izan zen, urtarrilean. Ordituk ez da gelditu ere egin

N. Beste estudioetako esperientzia baliagarria egingo zitzazu, ezta?

H. H. Leku guztietako gauzarik onenak gogoan hartu eta saiatu naiz gauza horiek denak hemen biltzen. Beti mugak kontuan hartuta. Muga ekonomikoak, hain zuzen. Baina aukeran izan ditudan posibilitate guztien artean, egokiena egiten saiatu naiz.

N. Noiz hasi zinen Higain estudioari bueltak ematen?

H. H. Andoaingo Garate estudioan nire etapa bete zela ikusi nuenean, toki finko gabe geratu nintzen. Batetik bestera nabilen nire trasteekin, aparagailu guztiekin bueltaka. IZ-n (Amasa-Gipuzkoan) edo Azkaraten (Nafarroan)



KEN ZAZPIRENA HIGAINEN GRABATUA IZAN DA. BARRICADAKO EL DROGAS-EN BAKARKAKO LAN BERRIAREN NAHASKETAK EGITEN DABIL EGUN HAUETAN.

nenbilen nire trasteekin. Eta lagunei furgoneta eskatuz ibili behar nuen; edota trasteak etxera igotzeko, beti laguntza eske ibili behar izaten nuen.

Bestetik, etxean, umea ere bazetorren eta horrela ezin nuen segi. Nahiz eta gustura egon beste estudio batzuetan lanean, ezin nuen horrela segi. Toki ezberdinak begiratzen hasi nintzen, baina batzuetan prezioak oso garestiak eta bestetan gorabehera asko.

Azkenean, aitagarrebak esan zidan, "begira, hau hemen zio, permisoak lortzen badituk, hiretzako". Ba aurrera.

N. Horri esker, orain bertatik bertara dauzkazu lantokia eta etxea.

H. H. Ni oso etxekoia naiz. Eta niretzat oso inportantea da hemendik atera eta alabarekin bazkaldu ahal izatea. Estudioetik atera eta berehala nago etxekoekin. Udaran ere, hemen goian (estudioaren goikaldean dagoen bordan) egoten dira.

N. Zein izan zen lehen grabazioa?

H. H. Lehen lana Kaotikorena izan zen, urtarrilean. Nahasketak, hain zuzen. Azkaraten egin behar nuen, baina elurra iragarrita zegoen eta datak gainean nituen. Ze Kaotiko bukatu eta Governorsekin hasi behar nuen hemen. Elurraren beldurrez, egunak galtzeko arriskua nuen, eta hemen bertan hasi

nintzen Kaotikoren diskoa nahasten. Langileak kanpoaldean lanean eta ni nahasketak egiten. Gero Governorsen disko osoa egin nuen, ondoren Burgoseko taldeko bat, Nahixan-en diskoa, Hesian, Ken Zazpikoak izan ziren abuztuan hemen grabatzen... Ez naiz geratu ere egin. Orain "El Drogas"-ekin ari naiz, bere bakarkako diskoa grabatzen.

Ken Zazpi taldeko zuzeneko teknikaria

NOAUA! Zuzeneko emanaldietan ere tekniko bezala aritu izan zara. Lan hori ere egiten duzu oraindik?

Haritz Harreguy. Ken Zazpirekin nabil. Beste gauza batzuk ere egin ditut. Baina batez ere, Ken Zazpirekin aritzen naiz.

N. Hori ere baliagarri izango zaizu.

H. H. Bai eta ez dut uste utziko dudarik. Gustuko lana dut hori ere. Zuzenekoak egin gabe denbora bat ematen badut, barruak eskatu egiten dit. Taldea gustukoa badut, gainera, oso gustura joaten naiz. Eta Ken Zazpirekin oso gustura nago, harreman ona dugu gainera.

Haritz Harreguy, Higain estudioa

“Apirila arte estudioa hartuta daukat”

NOAUA! Dagoeneko hartuko zenion neurria estudioari.

Haritz Harreguy. Ez pentsa. Horretan ari naiz. Obrak bukatu eta lanean hasi orduko, hainbat kontu izan ditut. Hautsa sartzen zela leiho artean, ura sartzen zela beste toki batean, berriz ere langile denak juntatu... Horrela ibili naiz. Arnas pixka bat hartzeko gogoia dut orain.

Estudioaren akustikara ere ohitzen ari naiz. Kataluniako tekniko batekin egin dut estudioaren diseinu akustikoa eta Bartzelonatik hirutan edo ekarri dut. Egokitzen ari naiz oraindik baina oso pozik nago.

MUSIKARI LANAK, UTZITA

“Orain familikoentzat bakarrik egiten ditut kantuak...”

N. Krisia aipatzen da toki guztietan. Hori ere igarri al duzu zuk?

H. H. Harrituta nago, apirila arte estudioa hartuta daukat. Hamlet eta Ofunkillo taldeak ere deika ditut. Nik sekula ez dut hainbeste lanik izan. Urtarrilerako adibidez, hiru talde dauzkat zain eta aukeratu egin behar!

N. Musikari moduan, ordea, aspaldi ez dugu zure berri izan. Atez ateko kantan hartu zenuen parte, baina dagoeneko utzia duzu musikari alor hori, ala ez?

H. H. Orain familiakoentzat bakarrik egiten ditut kantuak... Ez dago denborarik denerako. Eta bestetik, pereza handia ematen dit harremenen kontu hori, lokaleko lan hori. Akaso, jada osatuta dagoen talde batean gustura arituko nintzateke gitarra-jole moduan, baina bolada batean. Eta gustuko talde batean.



TOKI EDERREAN AURKITZEN DA HIGAIN ESTUDIOA, SAN ESTEBANEN.

N. Larrua Truk, Sen...
Oroitzapenak onak izango dituzu.
H. H. Bai, noski. Horrela hasi

ginen musika kontuetan. Gero poliki-poliki hasi nintzen tekniko moduan eta orain arte.

Bakarkako diskoa ari da grabatzen egunotan “El Drogas”



Barricadako kantari eta baxujoleak badu bakarkako proiektu bat, Txarrena izenekoa. Disko berria plazaratuko du laster eta lan hori

Higain estudioan grabatua izan da. Nahasketak egiten dabiltza egunotan. Biak erretratatu genituen aurreko astean, estudioaren atarian.

Akerra Gaztetxea, gazte belaunaldi berriaren esku

Erreleboa gertatu da Txokoaldeko Akerra Gaztetxean. Urteetan gunea kudeatu duen koadrilak herriko beste bati lekukoa pasa berri dio hilabeteotan. Kide berriek pixkanaka biltokiaren norabidea finkatzen joan nahi dute. Girotzen hasteko kontzertu gaua antolatu dute, ostiral honetarako, urriak 22. Gaueko 23:00etatik aurrera hiru taldeek joko dute bertan. Aurrera begira, herriko gazteen arteko harremana sendotzeko aukera eman eta ekimenak antolatu nahi dituen gazteari atek ireki nahi dizkiote gaztetxeok.

Txokoaldeko Akerra Gaztetxeak bizi-rik dirau eta hala jarraituko du aurrerantzean ere. Urteetan gune hura baliatu duen gazte koadrilak lekukoa pasa zioten duela hilabete batzuk, herriko beste lagun talde bati. “Gugana etorri ziren uztekoak zirela, gaztetxeari bizia emateko jende berria behar zutela esanez”, adierazi du gaztetxeko kideetako batek Zuhaitz Lizasok. Oraingo lagun koadrilakoei Akerra Gaztetxeko ardura hartzeko proposamena jaso zutenean ez zuten zalantza handirik izan. “Erabakia buruan bueltaka genuen. Koadrilaren artean hartu dugu”, adierazi du Lizasok.

ATEAK ZABALIK

Gazteen arteko harremana sendotu nahi dute: “Hitz egin dezatela gurekin. Euren iritziak kontuan hartuko ditugu”

Egunotan gunea prestatzen ari dira ostiral gauerako, urriaren 22an lehen ekitaldi nagusia, kontzertu gaua antolatu baitute. Akerra Gaztetxeok bertara joateko gonbita luzatzen dute: “Etortzeko, ondo pasako dutela. Show-a ziurtatua egongo da”. Kontzertuek iraun artean eta emanaldien ostean ere, bertako taberna zabalduko dute.



OSTIRAL HONETAN, KONTZERTUA ANTOLATU DUTE AKERRA GAZTETXEAN.

Ateak irekita

Aste honetako kontzertu gaua igaro ostean, bestelako asmorik ere badute. Gaztetxearen norabidea definitzeko denbora hartu nahi dute, baina aurrerago jai egun bat antolatzekotan ere badabilta.

Ekimen hauen bidez, herriko gazteen arteko harremana sendotu nahi dute Akerra Gaztetxeok. “Harremana badago, baina gehiago izateko”, adierazi du Aitor Pagolak. Horregatik, edozer antolatu nahi duten edonori atek zabalik dituela gogorazi nahi dute. “Etorri eta hitz egin dezatela gurekin. Beraien iritziak kontuan hartuko ditugu”, gaineratu du Pagolak.

Desegin taldea

Hiru talde gonbidatu dituzte Akerra Gaztetxeko kontzertu gauera: Skasti talde zarautzarra eta herriko bi talde, Mendeku Itxua eta Desegin. Azken hauek, euren hirugarren emanaldia eskainiko dute Txokoalden. “Urtebete, urte eta erdi entseatzen gabiltza, kontzertuak emateko presarik gabe”, adierazi du taldeko kide Pagolak. Lau kanta sortu eta eurek entzuteko grabatu dituzte.

Ostiral honetarako kontzertua antolatu dute

Eguna: urriak 22, ostirala.

Ordua: 23:00.

Tokia: Akerra Gaztetxea.

Taldeak: Desegin, Mendeku Itxua eta Skasti.

Antolatzailea: Akerra Gaztetxea.

Mendeku Itxua taldekoen lan berria, kaleratzear

Piztien Pare izena du datorren Pilean Mendeku Itxua talde usurbildarrak kaleratuko duen diska berriak. Aurkezpen kontzertua ere lotuta dute jada; azaroaren 19an, Donostiako Doka Kafe Antzokian, gaueko 21:00etan. Aldez aurretik ordea, gogoratu, ostiral honetan, Akerra Gaztetxean joko dute eta ostegunean berriz, gaueko 21:00etatik aurrera, Gasteizko Gaztetxean.

Azaroaren 3an abiatuko da Kulturaldia 2010

Azaroa heltzearekin batera dator aurten ere, Noaua! Kultur Elkarteak antolatutako Kulturaldia. Denetariko formatuak tartea izango duten bost ekitaldi, azaroaren 3an hasi eta hilaren 13ra arte. Hasteko, Imanol Murua eta "Loiolako Hegiak" ardatz izango dituen solasaldia.

Aipatu moduan, denboran atzera egin arren, egunerokotasun handiko gaia hizpide izango du Kulturaldiko lehen ekitaldiak. Euskal Herriko gatazka politikoa, eta zehazkiago aipatuta, 2005-2007 urte arteko elkarrizketa-prozesua. Gai horren inguruko "Loiolako Hegiak" izeneko liburua kaleratua du Imanol Murua kazetari zarauztarrak. Liburuan islatzen diren edukiak aurkeztearekin batera, solase-rako tartea izango da azaroaren 3an.

Ahaztu behar ez den iraganera joko du baita, Kulturaldiko bigarren ekitaldiak, "Debekatua dago oroitzea" dokumentalaren bidez. Txaber Larreategi eta Josu Martinez egileen lan honek, 1937-1944 urte artean Saturraraneke hondartzan izan zen emakumeen kartzela du hizpide nagusi. 700 lagunentzako gunean, 2.000 emakume giltzaperatu zituzten bertan, bizi-baldintza penagarrietan. Dokumentalaren proiektioa datorren Kulturaldian ikusi eta entzun ahal izango da, azaroaren 5ean.

Hotsa eta ahotsa, hitza eta musika

Musika garaikidea, musika esperimental eta bertsoak elkarrekin osaturiko hotsen eta ahotsen emanaldi berritzailea da "Ornitorrinkus".



IMANOL MURUAREN HITZALDIAZ ETA MAIALEN LUJANBIOREN "ORNITORRINKUS" IKUSKIZUNAZ GOZATZEKO AUKERA IZANGO DUGU.

Izatearen, izateko ausardi eta askatasunaren, eta izan-ezinaren inguruko gaiak dira, Maialen Lujanbio eta Judith Monterok Sutegira ekarriko dituztenak Kulturaldian; hotsa eta ahotsa.

Hitza eta musika, Yolanda Arrietak eta Juantxo Zeberioek uztartuko dituzte "Off-on" emanaldian. Testu laburrak, akzio sinbolikoak eta aipatu moduan musika osagai izango ditu. Aurkezpen testuak hala dio: "Herriatik nator, tribuaren babespetik... Hirian ohartu naiz, bada, ni neu besteekin batera eta baita besteen presiopean garatzeko gune bat dela askatasuna, OFF gustuko batean egoteko geruza bat, OFF on batean egoteko toki bat, edota OFF eta ON, itzalean nahiz pizturik ibiltzeko aukera bat".

Grebara itzulera

Antezlan batek osatuko du Kulturaldiko aurtengo eskaintza. Lakrikun antzerki talde azpeitiarraren "Prest gaude!" antezlanak hain zuzen. Gurutze Eizmendi, Alaitz Olaiola eta

Idoia Uranga aktoreak grebara doaz. Aurreko saiakeran beren helburuak bete izan ez zituzten arren, bigarren aldiz ahalegintzeko prest dago hirukotea. Greba deialdira joateko gonbita luzatzen diete herritarrei, azaroaren 6an.

Urriaren 29ko astekarian, Kulturaldiaren inguruko xehetasun gehiago. Ekitaldiei lotutako informazioa, hitzordu eta sarreraren berri...

Bost ekitaldi guztira

Azaroak 3, hitzaldia: Imanol Murua, "Loiolako Hegiak", solasaldia Sutegin.

Azaroak 5, dokumentala: Txaber Larreategi eta Josu Martinez, "Debekatuta dago oroitzea", Sutegin.

Azaroak 6, antzerkia: Lakrikun taldearen "Prest gaude!", Sutegin.

Azaroak 7, musika: Maialen Lujanbio eta Judith Montero, "Ornitorrinkus" hotsa eta ahotsa.

Azaroak 13, hitza eta musika: "Off-On", Yolanda Arrieta eta Juantxo Zeberio, Sutegin.

TAXI
607 92 87 70
Angel (24h) USURBIL

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Europa Cup txapelketan, Amador Granados txirrindularia hirugarren izan da

Bitan hirugarren izan da Amador Granados txirrindularia Alemaniako Europa Cup txapelketan, Kaarts Büttgen hirian. Pasa den asteburuan jokatu zen txapelketan, Amador Granados hirugarren izan zen pistako kilometro distantzian. Darren Kenny eta Rik Waddo izan ziren lehen sailkatuak, hurrenez hurren. Jazarpen lasterketan ere, hirugarren izan zen Amador Granados txirrindularia.

Denboraldi honetan, txirrindularitza egokitan hainbat aldaketa izan dira. Horren ondorioz, Amador Granadosek C3 kategorian lehiatu behar du orain. Egoera berrira ari da egokitzen.

2011ko otsailean jokatu da



C3 KATEGORIAN LEHIATZEN DA ORAIN AMADOR GRANADOS.

Munduko Txapelketa; hori da bere helmuga orain. Eta horren ondoren,

2012an Londonen ospatuko diren Olinpiar Jokoetarako sailkatzea.

Bi domina gehiago Judo Taldearen eskutik

Urrezko eta brontzeko domina bana irabazi zituzten Usurbil Judo Taldekoek, joan den asteburuan Vigon jokatu zen kadete mailako Espainiako 1. Kopan. 81 kiloz azpikoen mailan, Beñat Aburuzak brontzeko domina irabazi zuen finalerdira ailegatu ostean. Xabi Cazorlak bestalde, urrezko domina 66 kiloz azpikoen mailan. Herriko judo taldeko bi kideok irabazitako domina banari esker, Euskadiko selekzioak taldeko sailkapenean hirugarren postuan amaitu zuen.



BEÑAT ABURUZA ETA XABI CAZORLA VIGON, DOMINAK IRABAZI BERRITAN.

Andoain-Leitza bizikleta martxa

Aste honetan, Usurbilgo kiroldegitik honako deialdia jaso dugu. Andoain-Leitza bizikleta martxa egingo da igandean, goizeko 9:00etan abiatuta. Andoaingo Otieta parketik abiatuko da martxa.



Informazio gehiago, telefono zenbaki honetan: 607 449 299.

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

**BENTA
TABERNA**

Oilasko erreak
Ogitartekoak

San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

ERRAZKIN
Igeltzeritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Ostadarren jokatu du aurten usurbildar futbolari neska talde batek

Denboraldi berri honetan Usurbil FT-ko nesken taldea osatzerik ez dute izan. Horregatik, bertako kide izan diren Ainara Arnaiz, Ainhoa Torcida, Olatz Arrojeria, Amaia Añorga eta Itziar Iruzusta Lasarte-Oriako Ostadar taldean jokatzeko hasi dira. Senior mailako boskoteak aldaketetara ondo egokitzen ari dela dio, baina buruan darabilte, aukera sortzen bada datorren denboraldian Usurbil FT-ra itzultzea.

NOAUA! Zergatik zaudete aurten Ostadarren?

Ostadar neskek. 18 neska bildu eta aurrendenboraldiarekin hasi ginen Usurbilen. Lehiarako taldea osatu edo ez erabakitzeke unea ailegatu zen eta azkenean arrazoi desberdinengatik taldea ez da atera. Futbola utzi edota beste zerbaitez bilatzeko aukera genuen. Ostadarren jende faltan zebiltzan eta bost neska probatzerara animatu ginen. Etorri gara eta oraingoz primeran gabilta.

OSTADARREN

“Gu ez gara bertara joandako *atzerritar* bakarrak, Luberriko bizpahiru jokalarire badaude”

N. Zer moduzkoa da giroa? Eta entrenamendu saioak?

O. Ondo. Hasieran beti da zaila. Jende berria, entrenatzaile berriak eta dinamika ere oso desberdina da. Baina ondo egokitzen ari garela uste dugu. Jendearrekin eta primeran ematen gara, giro ona dago. Gainera, taldetxoan etortzen gara, beraz ondo. Entrenamendu aldetik desberdintasunak beti daude. Hasieran ikusi genuen, hemen gogorrek direla prestaketa saioak, baina azkenean ondo. Abuztuan aurrendenboraldiarekin hasi ginenez, Ostadarrera ailegatzerako erritmoa hartua genuen.

N. Gipuzkoa mailan nesken taldeak osatzeko zailtasunak omen daude?

O. Bai. Egia esan, ez dakigu zergatik izango den. Neskak beti daude kirolera-



OSTADARREKO SENIOR MAILAKO TALDEAN JOKATZEN DUTE AURTEN.

ko gogoz. Duela urte batzuk entzuten zen, kasu batzuetan bi herrien artean neska talde bat osatzen zela eta halakoak. Aurten, beste herri batzuetan ere ez dira taldeak osatu. Hasi berri asko dagoela ikusten da. Bada duela urte batzuk futboleant hasi eta orain futbola uzten ari den belaunaldi bat. Ostadarren ere beterrano guztiak utzi dute. Orain daudenak, 12 gazte dira, 18-20 urte artekoak, asko kadete mailatik igotakoak. Gu ez gara bertara joandako “atzerritar” bakarrak, Luberriko bizpahiru jokalarire daude, baita Hernaniko eta Añorgako jokalarire bana ere. Denon artean talde berria osatzen ari gara. Bi entrenatzaile berri hasi dira aurten. Beraz, denontzat talde berria da.

N. Aurtengoari begira zer erronka dituzue?

O. Zeretik hasi garenez, eta taldea denontzat berria denez, entrenamendu saioetara etortzean, partidak aztertzen ditugu. Oraingoz asmoa ez da galdu badugu hurrengo partida irabaztea edo lehenak ateratzea. Hobetzen goaz, gauzak pixkanaka ateratzen ari dira. Ikasten, elkar ezagutzen eta taldea egiten ari gara.

Etorkizunerako denon artean zerbaitez eraikitzen ari gara. Baina noski, etorkizun horretan ez dakigu zer paper dugun. Hurrengo urtean jendea beharko dute, gu hemendik joango bagara. Bestela, helburua, bai Usurbilen eta baita Ostadarren ere, kopa izan da. Iazkoa, Ostadarrek irabazi zuen.

N. Burua ordea hurrengo denboraldian eta Usurbilen duzue?

O. Ez dakigu zer egingo dugun hurrengo urtean. Nork jakin hurrengo denboraldian non bukatuko dugun, Errealean agian, nork daki (barreak).

N. Datorren denboraldian taldea osatuko balitz, Usurbil FT-ra bueltatzeko asmoa duzue?

O. Printzipioz horretan geratu gara. Hurrengo urtera begira taldea osatu nahi genuke, futbola asko maite dugulako, asko gustatzen zaigu. Askok ematen digu eta horregatik jarraitzen dugu. Orain neskek Usurbilen ez dute futboleant aritzeko aukerarik, pena da. Eta atzetik datozen belaunaldiei ere irteera eman behar zaie.

“Hurrengo urterako taldea atera behar dugu”

N. Usurbilen nesken taldea osatzeko jokalarire beharko dira. Zer esan nahi diezue?

O. Usurbilen beti egon da futboleant gogoia. Animatu neskek zerbaitez egitera, oso ondo pasatzen da. Ez gera-

tu ezer egin gabe, bestela gero ezer ez egiteak faktura pasatzen du. Hurrengo urterako taldea atera behar dugu, gogoia dago, neskek badaude. Bitartean eta nahi duenak, gu ikusi eta animatzerara etor dadila.

Agenda !!

Urriak 21 osteguna
18:00etan Usurbilgo Berdintasun
Planaren aurkezpena, Artzabalen.

Urriak 22 ostirala
17:30ean "Hala Bazan" txotxongilo
ikuskitzuna Sutegin. Doan.

Urriak 27 asteazkena
17:00etan Elikadura hizpide Aginagan,
Arrate Zahar Egoitzan, DYaren eskutik.

Goardiako farmaziak

Urriak 21, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urriak 22, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Urriak 23, larunbata
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 24, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 25, astelehena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urriak 26, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urriak 27, asteazkena
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Urriak 28, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 29, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urriak 30, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Urriak 31, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
*Chucla farmazia (22:00-09:00),
Kandaberaz, 48, Hernani (943 551 793)*
**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

Elikadurari buruzko

hitzaldia urriaren 27an, Aginagan

Elikadura, nahaste, intolerantzia eta elikadura desordenak Eizeneko hitzaldia antolatu du DYA Gipuzkoak urriaren 27rako Aginagan, arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

Aginagako Arrate Zahar Egoitzan egingo den hitzaldian, elikadura prozesua eta horri lotuta, gaixotasun batez ohartarazi dezaketen sintomak, anorexia eta bulimia bezalako elikadura desordenak edota nahaste endokri-noak ahotan hartuko dituzte.

Arrate Zahar Egoitzan

Pil-pilean dauden osasun gaiei lotuta DYA Gipuzkoak herritar orori hitzaldiak eskaintzeko helburu duen proiektu baten barruan antolatu dute Aginagan burutuko den ekitaldia.



ELIKADURA PROZESUA
ETA DESORDENAK AHOTAN
HARTUKO DITUZTE.

Hitzordua, datorren asteazkenean izango da, arratsaldeko 17:00-19:00 artean, Aginagako Arrate Zahar Egoitzan. Sarrera doan.

Ziortza Gazte Elkarteak egunotan hasiko du ikasturte berria

Ziortza Gazte Elkartek prest dute guztia ikasturte berria hasteko. Gazteak bildu eta taldeak osatzeko lehen hitzorduak finkatu dituzte jada. Ostiral honetan, urriak 22, DBH 4. mailako ikasleei (1995. urtean jaiotakoak) Ziortzara gerturatzeko gonbita luzatzen diete antolatzaileek, arratsaldeko 19:30ean, ohi bezala Kale Nagusiko apaiz-etxera.

Urriaren 28an, osteguna, DBH 3. mailakoei (1996. urtean jaiotakoak), 19:30ean eta egunbete beranduago, urriaren 29an, DBH 2. mailakoei (1997. urtean jaiotakoak), ordu berean.

Antolatzaileek gogorazten dutenez, adin tarte hauetako ikasle orok gazte elkartearen parte hartzeko atea zabalik ditu. Informazio gehiagorako: ziortzage@gmail.com.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA MANTENIMENDUA ETA KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8. behea · 943 383 348 · 609 888 021

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU
☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

ETXEBIZITZA

- 3 logelako pisu bat alokatzen da Muna Lurra kalean. Telefonoa: 661 43 63 53
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 60 metro karratu. 665 736 896 (Inaki).
- Pisu bat hartuko nuke alokairuan Usurbilen, bi hilabetez. Presazkoa da. 671 45 00 90.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Pisu bat alokatuko nuke, 3 logelakoa eta amueblatua. 646 086 109.
- Logela bat alokatuko nuke edo konpartitzeko etxe batean sartuko nintzateke alokairuan. Nire telefono zenbakia: 648 005 159.
- Apartamentu edo logela bat alokatuko genukeen bikote bat gara. 677866495
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan. 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tf: 686 969 112.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere bada. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 364 637 / 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfara (Errioxa). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gautz).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berri-ria. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatetako egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailen. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Santuenea 26an 60 metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai Kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berri berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Txaramunto auzoan 15 metro karratuko garaje itxi bat alokatzen da 85 euro. Interesatuak deitu: 661 618 970.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- Munalurra auzoan jarraian dauden garajeiko bi marra daukat salgai. Biak batera edo banaka. 678225241.
- 33m karratuko lokal bat alokatzen dut Atxegalden 280 eurotan. Sarrera egokia. 943373414
- 2006ko Ford Transit Td/240s Kombi6 salgai. Joseba 669 074 698.
- Zapi plaza dituen Kia Carnival bat saltzen dugu. 2004

- urtekoa da eta 118.000 km dauzka, ondo zaindua, beti garajean egondakoa. 669353942.
- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikoitza du eta altilo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. 943361265.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrek emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitze Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.
- Pertsona baten bila gabiltza irailetik aurrera eguerditan haurra ikastolatik etxera ekarri eta bazkaria emateko. Interesatuak deitu 696429899.
- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Neska bat eskaintzen da, etxeko lank egiteko, pertsona helduak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko. Gidabaimena eta disponibilitate osoa. 618722117.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrek ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsonak helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetan aritzeko, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, arratsaldez, baita jende nagusia edo gazteok orduka zaintzeko ere. Telefono zenbakia: 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- 23 urteko mutila, Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osorako. Lanean berehala hasteko prest: 622 065 461 (Alex).
- Neska bat, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko prest, goizez 8:00-15:00 artean. 679 742 413.
- Astebukaeratan edo asteazken zehar goizeko 10:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintzan lan egingo nuke. Interesatuak deitu 618410123
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228

- Mendingo edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrek emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Administrazioko perfil guztiak eta EGA prestatzeko klase partikularrek ematen ditut. 656 723 650 (Jorge).
- Matematikako liburua bat topatu dut Artzabalen, tel 634 44 39 10
- 1'50eko ohe osoa salgai. Somierra eta koltxoia. Prezio onean. 943 366 589.
- Gurrupildun aukli bat daukagu. Behar duen edozeini emango genioke. 943363201.
- Irailaren 30eko arratsaldean, Nintendo DS baten Rayo Mc Queenen funda gorria eta beltza galdu nuen Arizetako perilean, barruan joko batzuk zituela. Norbaitek aurkitu badu 943 36 34 48 deitu eta eskertuko da.
- Motxila gorri bat galdu da barruan futboleko botak eta eskularruak zituela. Aurkitzen duenak mesedez deitu 656 702 957. Mila esker.
- Irailaren 22an arratsaldeko 18:00ak eta 20:00ak bitartean olympus markako argazki kamara bat galdu da polikiroldegian inguruan (aparkalekua eta nesken aldagela bitartean). Seme alabaren argazkiak ditut eta berreskuratu nahiko nituzke. 615756893. Ondo konpentsatuko da.
- Bugaboo markako umeentzako kotxea daukat salgai. Kapazoa eta silla ditu eta burbuja eta zaxutxoa ere bai. Interesatuak deitu 616586851 telefonora.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke. 617 802 088.
- Flex markako ohe artikulatua eta latex koltxoia salgai. 700 euro. 667521874
- Wii kontsolenaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garrantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Argazki zaharrak beritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatuan. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikultu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aukiak, mahaia, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkuntzatan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 6657545071 (Inaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ezkontzietan abesteko kantari lirikoia. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moral jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.



Zorionak Sorgintxo!
Urriaren 18an bi urte bete dituzu, Ane. Txokolatetako muxu pila pila bat zure familiaren partez.



Zorionak Elen! Gure sirenak 7 urte bete dituri urriaren 20an, Zorionak Elen!

HILDAKOAK

Juanita Izaguirre Aldabalde
Urriaren 14an hil zen 91 urterekin



Auto Guria



Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)
☎ 943 363 298 • Faxe: 943 363 862

I. URKUZOLA AROZTEGIA

**Konfiantzazko arotza nahi baduzu,
etor zaitez gurera**

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.



Oria etorbidea 4, behea, LASARTE
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371 200 • 610 413 131



Lourdes
Larrano

FOTODEPILAZIOA:

Besapeak 30€tik
Ezpainak 15€tik
Ingleak 45€tik
Hanka osoak
125€tik
Hanka erdiak
80€tik

Tel. 943 362 887.
M. 619 060 685.
lourdes@esteticalourdes.es
www.esteticalourdes.es

twitter.com/noaua

facebook.com/noaua

youtube.com/noauatb

[NoauaTB noaua.com](http://NoauaTB.noaua.com)

Usurbil Kantuz

**Usurbilgo kantu taldea
2010**

Ikusi mendizaleak
baso eta zelaiak,
mendi tontor gainera
igo behar dugu.
nekeak ezta bide txarrak
oras gorak, Euskal Herria.
A s s a
Gu euskaldunak gara
Euskal Herrikoak.

Hemen mendi tontorrean
euskal lurren artean
begiak zabaldurik
bihotza erreta,
Hain ederra, hain polita da-ta,
gorak gorak, Euskal Herria!

Euskal Herrian euskar
nahi dugu hitz eta jola
lan eta bizi euskaraz eta
hortara goaz,
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.
Zabal bideak eta aireak
gure hizkuntzak har dezan arn
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskar
hitz egitea bada
bota dezagun
geure erri euskaraz
behar gaitu hitz
Hizkuntza hitz
nolurik ez gara
geure auzoan plaza
bezain gaitu plaza
Euskal Herria
pazie
ez al da
euskaldun
zer

**Liburua salgai 3€tan
Noaúa!n, Lizardin
eta Lauroken**

 **Noaúa!!** Usurbilgo kantu taldea
www.noaúa.com

